

Irungo guraso elkarteak

Udalari kontu eske umeen aisialdia euskaraz berma dezan

Irungo eskola publiko guztietako guraso elkarteek eskakizun bat luzatu diote herriko udalari, haur eta gazteen artean euskararen erabilera bermatzeko zailtasunak daudela ikusita. Pandemiak euskararen errealitate kaskarra are gehiago bistarazi duela diote. Zentzu horretan, udalerriko egoera soziolinguistikoaren analisia aurkeztu eta aisialdi esparruan esku hartzeko laguntza eskatu diote udal gobernari.

 MIKEL EIZAGIRRE  DANI BLANCO

Euskal Herriko joera orokorrari jarraiki, Irungo haurrek ere eskola dute euskara erabiltzeko esparru nagusi. Bertako guraso elkarteetan esanetan, egoera horrek “zailtasun ugari” dakartza ikasleen jabekuntza linguistikoan. Izan ere, Irungo hezkuntza guzietan D eredia gailentzen den arren, kale zein etxeetako joerek oso bestelako errealitatea erakusten dute. “Argi dago eskolan egiten dena ez dela nahikoa”, ziurtatu dute euskararen kale erabileraz kezkatutako gurasoek. Elkarteon ustez, udalak gaur gaurkoz bultzatzen dituen ekimenak lagungarri bai, “baina ez dira gabezia betetzeko aski”. Haur, gazte eta gurasoek egiten duten esfortzuak eskolatik kanpo ere bere isla merezi duela koan daude. Ondorioz, ahalegin handiagoa eskatu diote udalari.

Eneko Oiartzabal Gerriko (Lezo, 1982) Txingudi Ikastolako Guraso Elkartearen kidea da. Kontatzen duenez, joan den ikasturtean kide berriak sartu ziren bertan, seme-alaben euskararen inguruko kezka azalduz. Urtean bi aldiz alkatearekin bilkurak egitea eta zenbait batzordetan parte hartzen

hastea ebatzi zuten, bai eta aukera hori udalari ardurak eskatzeko baliatzea ere. Zehazki, aisialdi eta kirol jardueri lotutako eskaera luzatu zuten, gainontzeko guraso elkarteak ere jakinararen gainean jarri ondoren. Ikastetxe publiko guztietako guraso elkarteetan babesa jaso dute ordutik, eta gerora, udaleko Kultur, Kirol eta Gaztediaren Batzordea helarazi zuten eskaera; zinegotzi, kirol-elkarte eta gurasoen mahaira, hain zuzen ere.

PANDEMIAK KASKARTUTA

Euskararen erabilera Irunen pozik egoteko modukoa ez bazen, COVID-19ak “lehendik zeuden zailtasunak areagotu” dituela ziurtatu dute gurasoek. Iazko udaberriko itxialdian jarri dute azpimarra, ikasleak ia sei hilabetez eskolarik gabe egon ziren sasoiaren. Horrek gazteen euskara maila nabarmen okertu duela koan daude; “Irungo gazte eta haur ugariaren euskararako eremu bakarra eskola baita”, azaldu du Oiartzabalek. Halaber, hezkuntza komunitateak eta udalak orain arte egingutako “motz geratzen dela” dio.

DATU KEZKAGARRIAK

Gurasoek udalari aurkeztutako txostenak hainbat datu biltzen ditu, hala nola, Siadeco enpresak Irungo Udalarentzat 2018an egindako Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren nahiz Soziolinguistika Klusterrak Eusko Jaurlaritzarentzat egindako Arrue proiektuaren ikerketarenak. Bertan ikusten denez, euskara kaskar samar dabil erpin guztietatik begiratuta: etxeko zein lehen hizkuntzan, bilakaeran, kale erabileran, ikastetxeetan, eta hizkuntza-kompetentzian. Oiartzabalen hitzetan, “etxe euskaldunetako haurrek ere uste baino lehenago galtzen dute euskara”; fenomeno kezkarria, inondik inora. Bigarren Hezkuntzara heldu aurretik “nahiko ukituta” ikusten du Oiartzabalek lehen hizkuntzaren erabilera: “Galera azkarra izan ohi da, eta berreskurapena, berriz, motela”. Egoerari buelta eman nahian, ikasleen euskara-erabileran eragin handiena duten esparruen zerrindari erreparatu diote guraso elkarteek, eta horrela jabetu dira eskolaz kanpoko jarduera antolatuek badutela eragina seme-alaben hizkuntza-ohituretan.



Gurasoek diote aisialdia dela gaztaro-ko laugarren zutabea, familiaren, eskolaren eta lagunartearen ondoren, eta urtetan aurrera egin ahala laugarren zutabe horrek indar handiagoa hartzen duela.

AISIALDIKO BULTZADA

Oiartzabalen iritziz, aisialdiak gaztaro-ko laugarren zutabea osatzen du; familiaren, eskolaren eta lagunartearen ostean. Aisialdiak nerabeen bizitzan pisua irabazi ahala, eskolaren eta gurasoen eragina txikitu egiten da. Hori horrela, hizkuntza erabileraren eta aisialdiaren arteko korrelazioa adinaren poderioz indartzen denez, Irungo gurasoek berebiziko garrantzia esleitzen diote esparru horretan euskararen aldeko interbentzioa egiteari. Haurren kasuan, gainera, begiraleak erreferente garrantzitsuak direla uste du Oiartzabalek, “gurasoek eta irakasleek baino rol miresgarriagoak” izan ohi dituztelako.

ASIMETRIA LINGUISTIKOAK

Udalak, orokorrean, “besteekiko paretotasunean” eskaintzen omen ditu

**Besteak beste, eskatu
dute enpresa, elkarte
edo kolektiboek
udalaren dirulaguntzak
jasota eskaintzen
dituzten 16 urte
artekoentzako jarduera
eta ikastaro antolatu
guztiak euskaraz ematea**

euskarazko jarduera antolatuak. Asko jota, euskarari eta gaztelaniari pisu bera ematen zaielakoan dago Oiartzabal. Bere aburuz, ekitatearen printzipioari

jarraiki, “egoera berean ez dauden biri gauza bera emateak desoreka betikotzen du”. Zentzu horretan, udalak euskararen alde antolatzen dituen jarduerak “euskara sustatzeko ekimen puntualak” eta “eskaintza orokorretik aparteak” direla uste du. Zinezko aldaketa gauzatzeko, esku-hartze jarraitua eta orokortua galdegiten dute gurasoek.

ESKAERA ZEHATZAK

Haur eta gazteen errealitate sozial osoan eragiteko beharrezana seinatu dute gurasoek, eta horrekin batera, “eskolaz zein etxez gaindiko eremuetan euskararen sustapenerako plan baten ezinbestekotasuna” ekarri dute gogora. Esfortzu instituzionala indartzeko eskakizuna arrazoitzeko, Irungo guraso elkarteek aurrez aipatutako datuak zerrendatu dituzte, eta eskaera zehatzak jarri dituz-

te mahai ganean. Hala, haur, gazte zein familientzako kultur-programazioan – antzerkiak, kontzertuak eta ipuin kontaketa – eta aisialdiko jarduera antolatuetan –kirola, musika, dantza, kiroldegiko ikastaroak– euskararen aldeko apustua egitea eskatzen diote udalari. Zehatz-mehatz, ondokoak dira eskaerak:

Lehenik, 16 urtera arteko haur eta gazteentzako zein familientzako aisialdi eta kultur programazioa urte osoan zehar indartzea, euskarazko eskaintza osoarekin. Bigarrenik, 16 urtetik beherakoentzako kiroldegiko ikastaro guztiak euskaraz izatea. Hirugarrenik, enpresa, elkarte edota kolektiboek udalaren dirulaguntzak jasota eskaintzen dituzten 16 urte artekoentzako jarduera eta ikastaro antolatu guztiak euskaraz ematea. Hori berehalakoan betetzea ezinezkoa balitz, epe motzean lortu ahal izateko konpromisoa hartzea galdegiten dute, udalak sortutako programan elkarteen parte-hartzea sustatuta. Azken plan horren oinarriak honakoak izan beharko liriatekeela uste dute guraso euskaltzaleek: alde batetik, udalak entitatei hainbat zerbitzu eskaini behar lizkiekeela diote, hala nola, karteldegia, inprimakiak eta bestelakoak euskaratzeko eta itzultzeko zerbitzua, euskara ikasteko edota hobetzeko doako ikastaroak zein hizkera teknikoan trebatzeko liburuxkak banatzea. Entitatei dagokienez, zentzuzko epeetan zehaztutako konpromisoak bete beharko lituzkete trukean.

**Udalak dio besteekiko
parekotasunean eskaintzen
dituela euskarazko
jarduerak. Eneko
Oiertzabalen aburuz,
ekitatearen printzipioari
jarraiki, egoera berean
ez dauden biri gauza
bera emateak desoreka
betikotzen du**

Laugarrenik eta azkenik, Irungo eta auzoetako jaietako barraka eta puzgarrietan euskararen presentzia bermatzeari eman diote garrantzia; hizkuntza paisaian, jendaurreko langileetan, mu-



sikan eta abar. Horretarako, beharrezko laguntza eskatzen diete udal zerbitzuei. Paraleloki, puzgarrietan begirale aritzen diren gazteei hurrekin euskararen erabilera lehenesteko konpromisoa eskatzea ere gogoan izan dute.

ERRONKA LINGUISTIKOAK

Eskakizunok badute zentzurik Irungo Udalak 2018-2022 urteetarako egindako Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren baitan, eta hain zuzen ere, horren aipamena egin dute Irungo gurasoen elkarteek. Bertan azaltzen diren zenbait erronka estrategiko izan dituzte ahotan. Esate baterako, planeko hirugarren erronkak “Euskal hiztun berriak sortzea eta euskal hiztunen artean erabilera esparruak zabaltzea eta indartzea” egiten dio erreferentzia. Horren baitan, “euskara ikasteko erraztasunak eman, eta horretarako, egokiak diren baliabideak aurreikustea” legoke. Bosgarren erronkak erabiltzaileek euskaraz aritzeko duten eskubideari erantzuten dio: “Bezeroekin harremanetan euskara erabiltzeko aukerak sustatzea”, hain zuzen ere. Zazpigarren erronkak, berriz, eskolaz kanpoko jardueretan jartzen du arreta, haur zein gazteei zuzendutako horiei aipamen berezia eginez: “Eskolaz kanpoko jardueretan –eta bereziki haur eta gazteei zuzentzen zaizkienetan– euskara erabiltzeko aukera zabalak eskaintzea, euren jarduna hirian garatzen duten elkarte soziokultural eta aisialdikoekiko lankidetzaren bitartez”. Hari beretik tiraka, plana gauzatzeko beharrezkoak

izango diren berme zein izapide guztiak zerrendatzen ditu Irungo Udalak eta gurasoek banan-banan gogorarazi dituzte. Azkenik, 9. erronkan, “Ekitaldi soziokultural guztietan euskararen erabilera sustatu, euskarazko eta kalitatezko kultura sustatu eta euskarazko kultur produktuak ezagutarazi eta horien kontsumoa sustatu” behar litzatekeela seinatu dute gurasoek.

**Gurasoek uda baino
lehen udalak erantzun
positiboa ematea
espero dute, plana
datorren ikasturtean
abiarazteko asmoz**

ERANTZUNAREN ZAIN

Irungo gurasoen elkarte erantzunaren zain dago Gabonetatik. Udalak begi onez ikusi omen zuen proposamena, bai eta gaia jorrazteko borondatea azaldu ere. Batzordeetan asmo onak nagusitu zirela dio Oiertzabalek, baina oraindik ez dute berririk izan. Udala eta guraso elkarte aurki biltzekoak dira, eta orduan jorratuko dituzte eskakizunaren nondik norakoak. Gurasoek uda baino lehen erantzun positiboa espero dute, dagokion plana datorren ikasturtean abiarazteko asmoz. ●